

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Tokiko gobernu batzarraren 2024ko urriaren 24ko erabakiaren laburpena, zeinaren bidez 2024ko Amurrioko Gabon kanten erronda lehiaketarako deia egiten baita

BDNS (Identif.): 793319.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan jasotakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/793319>).

Lehenengoa. Onuradunak

Oinarrietan jasotako baldintzak betetzen dituen ezein pertsona talde; ez da nahitaezkoa elkarte izatea.

Bigarrena. Xedea

Lehiaketaren helburua da, batetik, bat-batean eratutako abesbatza taldeek kalean parte hartzea sustatzea, eta, bestetik, musika giroa sortzea parte hartzen duten abesbatzen bidez.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Amurrioko 2024ko Gabon kanten XVII. Erronda Lehiaketako oinarriak behin betiko onetsi ziren, dirulaguntzak arautzen dituzten gainerako oinarriekin batera, Amurrioko Udalaren 2024ko urtarrilaren 25eko osoko bilkuraren erabakia oinarri, eta haren eduki osoa urte bereko apirilaren 10eko ALHAOn (41. zk.) argitaratu zen. 38. oinarria.

Zenbatekoa Deialdi honetako lehiaketak sei sari ditu:

A kategoria	B kategoria
1. 400,00 euro	1. 300,00 euro
2. 250,00 euro	2. 200,00 euro
3. 150,00 euro	3. 100,00 euro

Gastua 33478.226.06 partidaren kontura egingo da. Zenbateko horretan egoki diren atxiki-penak egingo dira, PFEZren araudian ezarritakoari jarraituz.

Bosgarrena. Eskakerak aurkezteko tokia eta epea

Lanak Amurrioko kultura etxean entregatu behar dira, eta lanak onartzeko epea 2024ko azaroaren 11tik abenduaren 9ra bitartekoa izango da. Garaiz eta forma egokian aurkezten diren lanak baino ez dira onartuko izapidetzeko.

Amurrio, 2024ko urriaren 25a

Alkatea

JOSE RAMON MOLINUEVO LAÑA